

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Martxoaren 27ko 182/2024, ebazpenaren laburpena, euskara ikasteko beken deialdia. 2023/2024 ikasturtea

BDNS (Identif.): 751558.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/751558>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3b eta 20.8a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daitekeen deialdiaren laburpena argitaratzen da.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntzen onuradunak izango dira euskalduntze prozesuan sartuta dauden pertsona guztiak, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude.

Bigarrena. Dirulaguntza ematearen xedea

2023/2024 ikasturtean euskara ikastaroak burutzearren dagozkien zenbatekoei zati batean finantzatzea.

Hirugarrena. Oinarri araupetzaileak

Udalbatzak, 2023ko abenduaren 28an egindako batzarrean, euskara bekak emateko araupetuko duten oinarriak onartu zituen.

Dirulaguntza oinarriak, deialdia eta eskabide ereduak Barrundiako Udaleko web orrialdetik jaitsi ahal izango dira: www.barrundia.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kopuru osoa: 4.000,00 euro.

Aurrekontu partida: 335.480.001.

Bosgarrena. Eskariak aurkezteko epea

Dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko urriaren 31ra arte izango da.

Ozaetan, 2024ko apirilaren 8an

Alkalte-udalburua
IGOR MEDINA ISASA